

“GOTZON AKORDUAN HARTUTA”

(Testu hau 2009ko irailetik azarora bitartean Gotzon Garateren omenez Elgoibarren antolatu dituzten “Gotzon akorduan hartuta” jardunaldien barruan irakurri zuen egileak Iñaki Lasa adiskidea lagun harturik)

1. Aurkezpen(ak)

Hasteko moduak hamaika litezke, bost, asko. Ortodoxoena eta, beraz, hotzena, baina ez motzena, hauxe, adibidez:

“Gotzon Garate Goiartzun (Elgoibar, 1934 – Bilbo, 2008). Jesulaguna, euskal idazle eta filologoa, gure literaturaren adierazle handienetakoa sasoi batean. Marxismoaren gaineko hainbat lan argitaratu zituen euskaraz. Euskal Filologia ikasketak abiarazi zituen Deustuko Unibertsitatean. Hainbat polizia



eleberriren egilea, nobela beltza euskaraz garatu zuen. Munduan lau hegaletan ibilki, atzerriko berri eman zuen zenbait lanetan. Berrogeitaka urtean Euskal Herrian baserriz baserri ibili eta askotariko atsotitz eta esapideak bildu zituen. Estima handiko idazle eta, oroz gain, pertsona guztiz maitatua”.

Beste bertsio bat ematearren, askotan irakurria, Gotzonen liburuetakoa barne-azaletan ohi datorrena:

“Gotzon Garate Goiartzun (Elgoibar, 1934 – Bilbo, 2008). Jbsulaguna. Filosofian doktore Madrilen, Teologian lizentziatua Innsbrucken, Filologia Erromanikoan ere lizentziatua Deustun; Euskal Filologia ikasketak abiarazi zituen Deustuko Unibertsitatean. Hainbat hizkuntza ikasi zituen, baina euskarari eman zizkion bere onenak: saiakerak idatzi zituen (marxismoaren ingurukoak hasiera batean, eta euskal hizkuntza eta literaturari buruzkoak gero); lexikografian ahaztu ezinez-



Hamaika anaia-arrebetan gazteena izan zen Gotzon.

koa da Atsotitzak bilduma handia; eta horiez gain dozenatik gora kronika, ipuin bilduma eta eleberrri, polizi nobelak batik bat, hala nola: Esku leuna, Goizuetako ezkongaiak, Elizondoko eskutitzak, Izurri berria, Alaba”.

Beste aurkezpen modu bat, berriz, hotzetik baino askoz gehiago duena bihotzeko berotik, San Bartolome kaleko 13. zenbakiko paretan jarrita dago hil honen zortziaz gero:

“Hemen jaio zen Angel Mari (Gotzon) Garate jesuita, idazle eta euskaltzalea (1934-2008). Elgoibarko herriak esker ona adierazten dio utzitako ondarearengatik”.

Era batera zein bestera esan, bera da protagonista, gure artean egon gabe ere gurekin dagoena, Elgoibarretik gazterik alde egin zuen arren beti bertan iraun duena, hango eta hemengo bihotzetan bizi izan zelako, bizi delako oraindik. Gotzon Garate.



Garate Goiartzun familia.

2. Elgoibar

Gotzon Garate, baina Anjel Maria, 1934ko irailaren lehenengoan jaio zen Elgoibarren, San Bartolome kaleko 13. zenbakian. Hamaika anai-arrebatan gazteena izan zen, sei mutil eta bost neska familia handian. Haren etxeko senitartea ordukoa zen: gurasoak, hamaika anai-arrebak, izeko bat, amama eta neskamea bizi izan ziren batera.

Elgoibarren bertan jaioa zuen aita –Jenaro Garate–, nahiz eta aitaita zapataria Mutrikutik etorria izan. Amak, Josefa Goiartzunek, Mendaron sortua izanagatik ere, Bilbon zituen familia sustraiak; honen arbaso goiartzundarrak karlisten eta liberalen arteko gerraren eraginez joanak ziren Mendarora.

Gotzon Garatek beti goretsi zuen etxeko familia giroa.

“Bizitza honetan eduki dudan gauzarik ederrena horixe da, familia. Denok maite genuen elkar, pozik bizi ginen eta gurasoek ere maitasuna baizik ez zioten elkarri. Oso fededunak ziren biak. Gurasoen gelan, Jesusen Bihotzaren irudi bat zegoen, eta gure aita haren aurrean belaunikatzen zen gaue-ro. Fede handikoa zen. Elgoibarko batzuek Aitxaren deitzen zioten”.

Gaitzizenak ere badu historia... Gogoan hartu Errepublikara garaiako giroan komentu bat baino gehiago erre zituztela, eskoletan kristau gurutzeak ere kenarazi zituztela –“gurutzeak barruan eramatekoak dira”, esan ohi zuten errepublikarreke... beldurrez bizi zen kristaua, aitaren egitea bera ere gauza larria izan zitekeen. Gotzonen aita jostuna izaki –sastrea–, Elgoibartik Ondarroara, Eibarra eta bestetara ibili ohi zen motorrean, bezeroei trajeak probatzera joanda. Motorra piztu eta abiatzerakoan aitaren egiteko ohitura zuen. Bere burua sinatzeko ohitura hori ermita eta leku seinalatuen aurretik pasatzean ere erakutsiko zuen. Hortik, **Aitxaren** gaitzizen egokia. Errezu zale handia zen, eta harrigarri ere ez da lau seme jesuita joan izana.

1934an jaioa, esan dugunez, lau urteko mutikoa zen gerra amaitu zenean. Euskaraz hitz egiten zuten etxean, baina osterantzean, eskolan eta kalean ez zuen euskal girorik bizi izan. Behin baino gehiagotan adierazi izan zuenez, Francoren garairik gogorrenek harrapatu zuten...

“Kontrola ikaragarria zen. Gure arreba Anitaren eskutitzak, esaterako, guardia zibilek irakurtzen zituzten berari eman baino lehen. Giro horretan bizi ginen, eta erdaraz hitz egiten genuen lagunekin, eskolan batez ere”.



Euskararen kontzientzia hamabi urterekin hartu zuen. Garai hartan, Durangora joan zen ikastera, euskara hutsaren hurrengotzat zeukala. Durangoko jesuiten San Jose ikastetxean, ordea, bi lagun egin zituen, oso euskaltzaleak: Jabier Bastida eta Iñaki Bereziartua azpeitiarrak. Horiei eta beste zenbaiti esker, euskalduntasuna erne zitzaion. Haiiek ohartarazi zioten euskaldunak nor garen, euskara gure hizkuntza dela. Geroztik beti euskaraz egiten saiatu zen. Elgoibarrera itzuli zenean, lagunarteko hizkuntza aldatu zuten: lehenago gaztelaniaz egiten bazuten, gerora euskaraz egiten hasi ziren; zenbait lagunekin, behintzat. Aldatu beharra zegoen.

“Oroitzen naiz zelan mintzatu nintzen neure lagun maite batekin, Jesus Mari Ansolarekin. Geure artean berbetan euskaraz egin behar genuela esan nion. Ohiturari buelta ematea zail da, baina handik aurrera beti horrela egin genuen, euskaraz”.

Euskararekiko gogoia ez ezik, liburuekikoa ere erne zitzaion Gotzoni gaztaroan. Horretan, Gotzonen anaia dugun Romanen

lagunek parte handia izan zuten. Besteak beste, Pedro Jose Arriola, Jose Mari Gonzalez eta Manolito Ruizek... Haien bidez sartu ziren Garatetarrak liburu giroan. Roman eta Gotzon ez ezik, baita Jenaro eta Inazio anaiak ere...

“Gure aitak beti esaten zuen, liburu gehiegi ikusten zuela etxean, gauza onerako”.

Bestalde, Roman kontu zale handia izan, nonbait, eta ipuinak kontatzen ei zizkien auzoko haurrei. Garai hartan, artean telebistarik ere ez etxeetan, eta anaia zaharragoaren kontuak zituzten denbora pasa. Romanen kontuak eta komikiak aipatu izan zituen Gotzonek, txikitandiko liburu zaletasuna azaldu nahirik.

“Gure jostundegi-denda, beheko solairuan, San Bartolome kalean zegoen eta logelak lehenengo pisuan. Askotan amari esaten nion ez nengoela oso ondo eta ohera nindoala. Gainerako neba-arrebak jostundegian lanean ari ziren bitartean, ni ohera, ihesi, komikiak irakurtzera. Komikiekin hasi eta gero eleberriekin nien, jo eta ke”.

3. Jesuita

Jenaro izan zuten jesuita joaten lehenena. Hark, oso pozik zegoela esaten zien eta harixe jarraiki zitzaizkion Roman, Jose Luis eta, azkenean, anaietan gazteena, Gotzon bera. Anaiak bide hura hartu zutelako jo zuen hasieran ildo berean Gotzonek. Ez zitzaion erabaki hori hartu izana damutu. Jesuita izateak diziplina eta ikasketa onak, biak izateko aukera eman zion. Gotzon idazle eta irakasleak denbora ondo baliatu zuen gustuko lanerako.

“Goizeko sei etan jaiki eta gaueko hamarrak arte asti asko dago. Palan edo tenisean egiten nuen lehen egunero, baina kirolean ematen nuen denbora kenduta, beste denbora guztia neuretzat. Ni apaiz izan ez banintz ez nintzen ia 40 urtez 23 baserrian euskara aztertzen jardungo, eta ez nituen 30 liburu idatziko...”

Hemeretzi urte bete zituen egunean sartu zen jesuita Loiolan, 1953an. Bi urteko nobiziatua lehenengo, eta beste bi urteko junioratua egin zuen gero, ikasketa klasikoak lantzekoa. Horrekin batera, hizkuntzak ikasteko aukera baliatu zuen. Ordurako, frantsesa eta ingelesa lardaskatzen zituen eta alemana ikasten hasia zegoen. Junioratuan horiek hobetu eta alemanari eta errusierari ekin zien. Geroztik hizkuntzak ikasteari eta praktikatzeari ez zion utzi sekula. Ederrak zitzaizkion hizkuntza guztiak, baina “zein da nire hizkuntza?” galdera sortu zitzaion orduan. Erantzuten ere asmatu zuen.

“Nire hizkuntza? Euskara! Horrelaxe hasi nintzen euskarari lehentasuna ematen”.

Denbora joanean, sentipen horren erroak are sakonago sustraituko ziren Gotzonen baitan. Europako eta Estatu Batuetako unibertsitateetan ibilita, behin ere baino gehiago maitatzenago zuen euskara. Gure hizkuntza erabili beharra aldarrikatzen zuen:



“Hizkuntzalari guztiek esaten didate gauza bera, hizkuntza beharrezkoa ez bada, galdu egiten dela. Eta euskara Euskal Herrian bertan ez da beharrezkoa. Gaztelania eta frantsesa dira beharrezkoak”.

Hizkuntzak ikastea izan zuen umetatik zaletasun handienetako bat eta zortzi ikasi zituen hitz egiteko moduan: euskara, gaztelania, latina, frantsesa, ingelesa, italiera, alemanera eta hindia. Ez zen grekoz mintzatzeko gauza.

“Ez, ez dakit grekoz mintzatzeko, irakurtzen besterik ez”.

Hizkuntzak jakiteak mesede handia egin zion, hala munduan ibiltzeko nola liburuak irakurtzeko. Europa guztian ibili zen, Moskutik hasi eta Italiaraino. Baita Afrikan eta Asian ere... Eta, Amerikako Estatu Batuetan: ia berrogei urtez New Yorken eman izan zuen uda.

Filosofia ikasi zuen hiru urtez, Loiolan. Harreman estua izan zuen dotrina bidez Loiolako umeekin, eta haien bitartez, familiariekin. Gotzon Garateren bizitzan garai zoragarria.

“Osteguna genuen egun librea. Goizean dotrina ematera Kukuerrira, Azkoitiko auzora joaten ginen. Arratsaldean, Urrestillara. Gustura ibiltzen ginen Urrestillako frontoian umeekin, pilotan eta. Orduan ezagutu nuen Jautarkol, olerkari famatua. Adiskidetu ere bai. Urrestillako erretore zen. Gizon leuna eta atsegina, eta abertzale zintzoa. Eta jakina, bai Kukuerrin eta bai Urrestillan, euskaraz. Zoragarria”.

Loiolako hiru urteak bete eta jesuitari dagozkion froga urteak egitea zegokion. Zaragozan egin zituen, El Salvador ikas-tetxean, grekoa eta filosofia erakusten.

“Tximuak ere sar zitezkeen han ikastera, dirua izanez gero, behintzat”.

Igandetan, berriz, euskara erakusten zien ikastetxeko barne-tegian ziren euskaldunei.

4. Ikasketak atzerrian


Innsbrucken (Austria) ikasi zuen Teologia. Karl Rahner bera izan zuen irakasleen artean. Alemanez jarduten zuen egun osoan baina eskoletan irakasleek alemanez esaten zutena euskaraz idazten zuen. “Orduan ere nire bidea euskaraz zela ikusten nuen”. Lau urtez egon zen Innsbrucken. Hirugarren urtean ari zela, Euskal Herrira etorri eta apaiztu egin zen Loiolan, Jose Luis anaiarekin batera. Hogeita hamaika urte zituen Gotzonek, hogeita hamahiru, berriz, anaiak. Apaiztu eta atzera Innsbruckera jo zuen.

Filosofia ikasten ari zela idatzi zituen lehenengo lanak euskaraz, ikasle gazteek multikopistaz ateratzen zuten aldizkarian. Joseba Agirre azpeitiarra zen aldizkariaren bultzatzailea. Hantxe hasi zen artikulua idazten, Agirrek berak bultzatuta.

Aldiz, lehen artikulua, inprimaturik, Jokin Zaitegiren **Euzko-Gogoa** aldizkarian agertu zen, Guatemalan, 1959an, Gotzon hogeita lau urteko zela. Anton Hilckman aleman hizkuntzalararen artikulua zen, euskararen goresmenez idatzia, Gotzon Garatek euskaratu eta Jokin Zaitegiri Guatemalara bidali ziona.

“Europako erri zaarrena. Euskaldunen izkuntza, lantze ta oituretaz Anton Hilckman’ek idatzi ta Garatetar Gotzon Mirena’k SJ deuxtarretik euskeratuta

“Pirineo’ak Prantzi ta Españi alde-razten dituzte, baña Euskal-erria ez. Euskal erria bat da. Euskaldunak Europa’ko erru zaarrena erutzen dute. Beaiak bakarrik Europa’n ario-aurreko (vorarische) izkuntz batean mintzatzen diranak. Izkuntz onek, era askotan zabaldua, ez du antzik gure kontinenteko beste izkuntzekin. Jakintsueri izkutuki bat zaie. Ez ori bakarrik; zalantzik gabe, ez du zer ikusirikan ludi guztiko beste izkuntzekin; baita japonesarakin



ere. Baña tokizen (toponímico) asko izkuntz bietan berdin xamarrak izan arren itz-etorrera ezberdiña da...(…)

Europa'ko erri zaarrak maite dituana, euskera galtzen ari dala ikusiaz, naigabez betetzen da. Orregatik, A. Marr'ek, Rusia'ko izkuntz-jakitsuak esaten zuan, urrezko dorre bat egin bear zala Europa aintziñako bitxi estimagarri ori etorkizunerako gordetzeko. Batez ere Araba ta Naparroan, ia ibar izkutenetan ere euskera galdua da. Naiz ta Erronkal'eko erriak mendi tartean izan, Ustarroz'ek bakarrik eutsi dio zintzoki euskerari. Gizaldi ta gizaldietan euskaldun jakitsuak, españiar ta prantsesen oitura zalegikeriak garaitu dituzte. Orain gazte gendeak zin esteraztuta daude bere baliotasunaz..."

Horrela hasi zen artikulua idazten, ia berrogeita hamar urtean sekula utziko ez zuen lantegia. **Jesus'en Biotzaren Deia**, Egan eta Euzko-Gogoa aldizkarietan ageri dira Gotzonen lehen aldiko idazlanak. Alditan, Gomiga ezizenez sinaturik, hau da, Gotzon Mirena Garateren anagrama. Harrezkero, hamaika egunkari, aldizkari eta agerkaritan publikatu zituen artikulua.

5. Marxismoaz



Hangoak burutu eta hilabete zenbait Kordoban igaro zituen, karrera ondoko bigarren nobiziatu gisakoan. Ondoren, hogeita hamabi urte zituela, bi urte egin zituen Friburgon (Suitza), marxismoan espezializatzen.

Gotzonek berak esan izan zuenez, marxismoak eta komunismoak gizartea hobetzen lagunduko zutelakoan hasi zen gaiok aztertzen. Errusiera eta alemana ikasia zenez, jesuita nagusiek komunismoan espezializatzeke agindu zioten, ondoren Deustuko Unibertsita-

tean irakasteko. Bai eta irakatsi ere. Soziologian, Komertzialean, Historian eta Filologian eman zituen eskolak.

“Nik uste, Karl Marxek bizitza guztirako eman zidala justiziaren zentzua. Gaur egunean, esaterako, asko hitz egiten da bakeaz. Baina entzuten al da justizia eta maitasunari buruzko hitzik? Ezta bat ere! Jera dugu bakea euria bezala, goitik behera etorriko zaigula pentsatzekoa. Hori ez da horrela. Mundua hankaz gora dago”.

Doktore tesia ere egin zuen, marxismoaren gainekoa: **Karl Marx y los nacionalismos separatistas** (Karl Marx eta nazionalismo separatistak). Orduan ere, Euskal Herriari begira egin zuen tesia, garai hartan marxismoa eta abertzaletasuna zirelako –Gotzonen ustez–, “gure herrian indarririk handienak”. Tesia izan zen bizian gaztelaniaz ondu zuen liburu bakarra, “Madrilgo Complutense unibertsitatean defenditu behar nuelako. Ez zegoen beste erremediorik”. Liburu hartan, Marxen pentsamendua aztertu zuen, Hegel, Engels eta gainerakoen argitan. Euskaldunak zertan ote ginen, Engelsen hitz hauexek aldatu zituen bere lanera Gotzonek.

“No hay nación alguna en Europa que no cobije en alguno de sus rincones ruinas de uno o más pueblos, restos de una población antigua, reprimida y subyugada por la nación que más tarde ha sido portadora del desarrollo histórico.

Estos restos de nación pisoteados despiadadamente por la marcha de la historia, como lo dice Hegel, estas basuras de pueblos son siempre y lo seguirán siendo, hasta su completa asimilación o desnacionalización, los portadores fanáticos de la contrarrevolución, lo mismo que toda su existencia en una protesta contra la gran revolución histórica.

Así son los galos en Escocia, defensores de los Estuardo de 1640 a 1745.

En Francia los bretones, defensores de los Borbones de 1792 a 1800.

Los vascos en España, seguidores de Don Carlos”.

Gotzonek gaztelaniaz idatzi zuen liburu bakarra. Gero, ordea, liburuaren erdikada bat euskaratu egin zuen Dionisio Amundarainek eta Mensajero argitaletxeak kaleratu 1972an **Marx eta nazioa** izenaz. Marxismoari buruz argitaratuko zuen lan sortaren lehena izan zen.

“Euskal Herritik kanpora bederatzi urte egin eta Friburgotik etorri nintzenean esan nuen: euskarari nola lagundu behar diot nik? Garai hartan marxismoa irakasten nuen eta hortixe hasi nintzen. Marxismoari buruzkoak dira nire lehen liburuak”.

Esan ere zioten garai hartan, gaztelaniaz idatz zezala, aipu eta omen handiagoak jasoko zituela. Gotzonek, ezetz.

“Ni euskalduna naiz eta ez dut neure euskalduntasuna di-ragatik edo izenarengatik salduko. Inola ere ez”.

Horrela osatu zuen 1971n hasi eta 83ra bitartean argitaratu zuen marxismoari buruzko liburu zerrenda:

Marxen marxismoa

Marx eta nazioa

Marxen ondoko errebisionismoa

Maoren marxismoa: maoismoa

Leninen marxismoa: leninismoa

Lenin eta nazioen autodeterminazio eskubidea...

“Euskarari nion maitasunak eraginda idatzi nituen horiek guztiak. Iruditzen zitzaidan horixe nuela gure hizkuntzaren alde egiteko aukerarik behinena”.

6. Polizia eleberriak

Esanak esan, alabaina, polizia eleberriak ditu, aski segur, lan-ik ezagunenak, irakurrienak. Deustuko unibertsitatean marxismoari buruzko eskolak ematen zituen garaian nobela bi eta

ipuin mordoxka idatzi zituen. Eskolak ematea zuen lehenengo eginbeharra eta hastapenetan denbora handia ematen zuen eskolak gertatzen; sarritan, goizeko ordu txikiak arte. Urteak igarota, eskolak osatu xamar izan zituenean, literaturari ekiteko denbora izan zuen. Horrelaxe idatzi zituen, zaletasun hutsez, hainbat ipuin eta eleberri. Gaztetan polizia eleberria asko irakuria zen Gotzon Garate. On zitzaizkion hizkuntzak ikasteko, praktikatzeko.

”Gero, ikusi nuen polizia eleberria dela mundu osoan, alde handiz, gehien irakurria den eleberri mota. Moskun, Indian, New Yorken... garbi ikusi dut hori”.

Gazteek, zaharrek, unibertsitateko irakasleek eta langile arruntek ere irakurtzen zituztela zioen Gotzon Garatek eta, horrela, eleberri mota hori ongi ezagutzen zuenez, eta jendeak gustura irakurriko zituela iritzirik, idazteari ekin zion.

“Hurrengo bi egunetan Jbn Bidartek esku tartean zeukan arazoa burutu zuen. «Maria Cristina» hotelean lapurreta handi bat egina zen. Lau egun lehenagoko goizean diru-kutxa irekita aurkitu zuten eta diru eta bitxi guztiak falta.

Jbn Bidart deitu zuten esku-zikina harrapatzeko. Aurreko gauean diru-gela inguruan sukaldari bat ikusi zutelako, kulpaguztiak sukaldariaren gain botatzen zituzten. Baina Bidartek egiazko ebastea bilatu zuen: Paraguay'ko kontsul jauna“.

Idatzi eta tiraderan gorderik eduki zituen idazlanak aldi batean harik eta 1977an haietarik hiru, literatur lehiaketara bidali zituen arte: lehen saria irabazi zuten hiru lanek, hau da, **Oroitzapenetan** –Donostia Hiria, ipuina–, **Esku leuna** –Irun Hiria, eleberria–, eta **Eizondoko eskutitzak** –Txomin Agirre saria, eleberria–, idazlanek. Geroago, 1979an, Azkue saria jasoko zuen **Lehortean** ipuin bildumarekin, eta 1981ean Azkue saria bera **Izurri berria** nobelarengatik...

“Idazle askori sariak bihotza altxatu digute idazten jarraitzeko. Sari horiek irabazteak benetan bultzada eman zidaten aurrera begira”.

Upel berekoak dira **Goizuetako ezkongabeak** eta **Muskilak** lanak, adibidez, eta bestelakoak, aldiz, geroan idatziko zituen kronika eta bidaia liburuak. Beste iturri batekoak dira, halaber, ondu zituen saiakera lanak: **Atzerriko eta Euskal Herriko polizia eleberria**, **Euskal eleberrien kondaira** (hiru liburuki), edota **Lauaxeta menderik mende** ikerketa lanak.

7. India, New York

“Hiri pizgarri, ernagarririk ezagutu nahi baduzu, zoaz New Yorkera. New Yorken gure egunetako computer munduaren alderdirik kilikagarrienak bildu direla esan liteke. Modernotasunaren distira ikusteko ez da New York bezalako hiririk.


“Lurralde miresgarririk, amesgarririk ikusi nahi baduzu, ordea, zoaz Indiara. Oraindik ere Indiak lehengo aldietako azti-keria eta mirariak gordetzen ditu. Norbaitek esan zuen bezala: ‘India, a combination of heaven and hell’: Indian zeruaren ederra eta infernuaren latza elkaturik aurkituko dituzu”.

Gotzon Garate bi txandatan egon zen Indian, hindi praktikatzeraz joana, hau da, lehenago Deustuko unibertsitatean gogotik ikasi zuen hizkuntza. Indian egonaldi bikainak igaro zituela esan ohi zuen, hizkuntza ikasiz gainera gauza berri asko ikasi zituela.

“Kalera irten eta beti ikusiko zenuen harrituko zintuen zerbait. Jendea, berriz, oso bihoztia eta karana”.

Liburu bat ere idatzi zuen han ikusitakoen berri emanez, Gotzonen beraren hausnarketa zenbaitekin batera tartekaturik: **India harrigarria**.

New Yorken, berriz, uda eman izan zuen urte askoan. Manhattanen, urte gehienetan, baina baita Bronx latz gogorean ere.



“Garai hartan dena desegina zegoen auzoan. Bomba atomikoa eroria zela ematen zuen”.

Bi liburu idatzi zituen han ikusita-koak kontatuz: *New York, New York* eta *New Yorkeko kronika beltza*.

Literatura aldetik polizia eleberriak baino baliotsuagoak irizten zien lanoi. Bazuen damua.

“Ez dira haiek bezain ezagunak, baina”.

Idatzi, gustatzen zitzaiolako idazten zuen eta, bide batez, euskarari laguntzearren. Idaztean sortzaile, kreatora ikusten zuen bere burua.

“Libre, istorioak asmatzeko, pertsonaiak moldatzeko, egiturak aldatzeko. Sentimendu oso berezia eta sakona da”.

8. Baserria unibertsitate

Zaragozan, Innsbrucken, Kordoban eta Friburgen igaro zituen bederatzi urteen ondoren atzenduxea zuen euskara, moteldua, herdoildua... 1967an, berriz ere euskararen jabe egiteko bide bila abiatu zen, eta onena baserrietara jotzea zela erabaki. Lehenengoak Azpeitiko Enparangain eta Odriozolatxo baserriak izan ziren. Artean ez zekien, ezin jakin, zer nolako altxorra jasoko zuen baserrietan, Azpeitian, Aramaion, Idiazabal, Aiherran, Goizuetan, Arizkunen... Lexikoa, atsotitzak, esapideak eta gainerakoak biltzeko, koadernotxoa ibiltzen zuen beti eta leku guztietan.

“Oroimenik onena papera da”.

Baserritarrei galdetu, koadernoan idatzi, unibertsitatera itzuli, garbira aldatu eta sailkatu, horixe lana. Hasieran, idazmakinan. Gero, ordenagailuan.



Urtero, maiatzaren lehenengo egunean, Gotzonek ibiltzen zituen baserri guztietako jendearen bilera egiten zuten.

Patziku Perurenak bertatik bertara ezagutu zuen Gotzon Garate, gure jesuita Goizuetako Errero baserrira joan zenean. 2008ko udan “Gotzon Garateri Goizueta aldetik” izeneko artikulua eman zuen argitarara Perurenak Diario Vasco egunkarian.

“Goizuetan ezagutu zintudan, han 1971-72 aldean. Auzoan abudo ikasi genuen, Errerora etorri omen zela fraile alai umezale bat. Hagitz ongi oroitzen naiz oraindik, igande arratsalde batez, Erreroko sukaldean nola kantatu zenizkigun haur kanta xoragarri batzuk, zeure kitarra eskuan zenuela.

“Beste igande ilunabar batean, berriz, Tobeneko Bordara joanak ginen ezti bila, eta zu Errerotik etorri zinen, familia guzia atzetik zenuela, aitona Mañuel xaharra ezongi samar zegoela eta, meza ematera. Jende mordoxka batek egin genuen mezalegea, eta orduantzekoa dut nik elizaz kanpo entzundako meza baserritar bakarra.

“Handik hogei urtera ikasi nuen, berriz atzera, gu mutiko ginela Errerora etortzen zen Aita Anjel Mari huraxe eta berbera omen zela Gotzon Garate sonatua. Ezin nuen sinestu...”.

9. Erdarakadak, atsotitzak eta beste

Baserrietara hasi zen orduko, garai bateko lan asko galduak ziren gure etxeetan. Ez lihoa, ez garia, ez artoa... Gotzonek, haatik, egiteko haiei lotutako lexikoa, esamoldeak eta atsotitzak bildu ahal izan zituen. Zorte horixe izan zuela zioen Gotzonek, alegia, denak biltzekoa, eta argitaratzekoa, zenbait lanetan: batetik, **Erdarakadak: euskaraz ongi mintzatzeko hiztegia, zazpi probintziatiko adibideak**; bestetik, **27.173. Atsotitzak, refranes, proverbs, proverbial** –bigarren edizioan hiru mila atsotitz gehiago erantsi zituen, 30.466 esaera bildurik–, eta, hirugarrenik, **Euskarazko tradizioa eta molde berriak**...

Atsotitz bilduma erraldoiaren lehenengo edizioari dagokionez, 14.458 dira euskaraz, 5.208 gaztelaniaz, 4.045 ingelesez, eta 3.462 latinez:

“Irri, anitzek; negar, guztiek.
Biharko esperantzan, gaurkorik ez utzi.
Hartzen duena, zordun
Hartzeko txarra baino, zor ona hobe.
Pixka eta pixka, puska.
Pobrearen edana, mozkorra; aberatsarena, xelebreia.
Ipurdia lastoz duenak, suari beldur.
Esamesak, gezur hotsak.
Esanak, esankizun baleude..

“Atsotitzak nire hiztegian gelditu dira betiko, eta esapideak ere horrelaxe geratuko dira, urte batzuk barru aterako dudan liburuan. Lan luzea izango da, hala ere”.

Honela eman zuen Jabier Kaltzakorta irakasleak Gotzon Garate euskalariaren lanaren berria Mendebalde Kultura Alkarteak 2004an Garateren omenez eratutako ekitaldian.

“Vladimir Propp-ek dio bere liburuetako hitzaurre batean, Afanasev ipuin-biltzaileak Errusiako oihanpeetan eta baserrietan bildutako ipuin-ale ederrak berak [Propp-ek] bulego ba-

teko lau horma estutan aztertzen ari izan zela. Biltzea eta aztertzea, ordea, lan biak, Gotzonek berak egiten ditu. Euskal Herri osoko zazpi lurraldeetan bildutako esapideak Deustuko bulego bateko lau hormaren artean aztertzen dihardu Gotzonek. Ez dago neure ustez lan politagorik. Ez dago neure ustez baserri bateko sukaldeko supazterrean ipuin eta kontakizunak entzutea baino gauza ederragorik. Beheko sutako sugarrak laratz beltza sorgin-dantzan miazkatzen ari direla, aitona maiagarri baten istorio-mixterioak eta ipuinak entzutea baino gauza ederragorik ba ote dago?..”

Baserrietan ia berrogei urtean milaka erregistro zituen bilduak. Ehun mila esapideren kalkulua egina zuen. Sailkatzen hasita zegoen. Gaztelaniazko ordezkioak bilatzen. Azkenean, erdarak-euskara zatia osatzeko asmotan... Atsotitz liburua bai, argitaratu zuen. Esapideen gainekoari dagokionez, berriz, zazpi euskal herrietan bildutako modismoei buruzko lana ez zuen bukatzerik izan... Heriok hartu zuen lehenago.

Zazpi herrialdeetan ibili zen, baserritarrak irakasle harturik.

“Nik beti esaten diet euskaraz nik baino hobeto dakitela, nire maisu-maistrak direla. Eta poztu egiten dira. Egia galanta da, gainera”.

Euskara aztertzen ematen zuen eguna, etxeko sukaldean beti, bertan izan ohi baitziren etxeko zaharrenak, hau da, aita-ta-amamak.

“Zenbat eta zaharrago, hobeto. Horiek izan dira eta dira nire irakaslerik onenak. Euskaraz eurak dira ongien dakitenak. Logikoa da hori. Lanak ere zaharrak, eta haiek egiten zituzten”.

Eta adin handikoenen ondoan jarri eta bateko eta besteko esaldiak nola esaten zituzten galdetu, halako atsotitz edo halako esapidea erabiltzen ote zuten...

Urtero, maiatzaren lehenengo egunean, Gotzonek ibiltzen zituen baserri guztietako jendearen bilera egiten zuten. Urtero,

toki ezberdin batean. Meza izaten zuten, eta bazkaria. Zazpi herrialdeetako jendea, nor bere euskalkian mintzo.

“Huraxe bai egiazko Euskal Herri euskalduna!”.

Urte askoan egindako lanaren fruitua argitaratu zuen 1998an, atsotitzen gainera lan mardula, eta kontsultarako utzi interneten. Pagotxa irakurle, idazle, ikertzaile eta interesatuarentzat.

Beste alde batetik, baserrian zegoela, beti, egunero, mendi aldera joaten zen, txangoan, zakurrekin.

“Nire lagun maiteekin. Batzuetan, Goizuetan, adibidez, bost zakurrekin”.

Baserrietan zakurrekin izan zituen harremanak liburu batean azaldu zituen gero: **Zakurra zeure laguna.**

Inondik ere, bene-benetako ikastegi, unibertsitate eta, orobat, etxe izan zituen Gotzon Garatek euskal herrietako baserriak. Hainbestexek maite izan zituen gure bazterrak, Euskal Herriko leku eta parajeak. Elgoibar, Azpeitia, Bilbo... gure idazlearen bihotz eta geografian ageri dira, kuttunak izan zituen Gotzonek:

“Munduko lau hegaletan bizi izan naiz baina niretzat ez dago Elgoibar bezalako herririk. Hor jaiotzen eta hemeretzi urte arte hortxe bizi izan nintzen. Beste bi herri ere badira markatu nautenak, baina ez Elgoibarrek moduan. Azpeitiak eta Bilbok. Azpeitian sei urte eman nituen eta nire euskararentzako erabakigarriak izan ziren. Gero ere Azpeitiko baserrietan bizi izan naiz, batez ere Odriozolatxon. Baserri hori izan da nire euskararen unibertsitatea. Eta Bilbon bizi naiz aspalditik. Oso maite dut Bilbo eta Bilboko jendea. Eibartarrak bezalakoxeak dira, adiskidetsuak eta bihotz zabalak...”

10. Euskal filologia deustun

Gotzon Garatek Filologia ikasketak ere burutu zituen. Friburgotik Deustura joanik, bertako unibertsitatean baziren Filo-

logia Erromanikoa, Ingelesa, Frantsesa, Aleman Filologia... Euskal Filologiarik ez, ordea. Gotzonek, orduan, Filologia Erromanikoa ikasi zuen, ondoren Euskal Filologia sortu ahal izateko. Unibertsitateko errektoreari eta beste zenbait laguni



ere esan izan zien, bidegabekeria iruditzen zitzaiola Deustuko unibertsitatean Euskal Filologia ikasketarik ez eskaintzea.

“Denbora aurrera eta ezer gertatzen ez zenez gero, 1977ko maiatzean edo, artikulu bat idatzi eta Euskal Herriko egunkari guztietara bidali nuen: ‘Datorren ikasturtean euskal filologia ikasketak egin ahalko dira Deustuko Unibertsitatean’. Hura izan zen zalaparta! Errektoreak deitu zidan eta, oso haserre, txantajista hutsa nintzela esaten hasi zitzaidan. Eta halaxe hasi ginen, eta gaur arte”.

Deustuko Unibertsitateko irakasle, jesuita eta apaiz zen aldetik, behin ere ez zuen ezkutatu iritzirik:

“Euskal Herrian apaiza euskararen alde agertu behar da, hizkuntza hori baztertua eta desegina dagoelako. Eta lau hegalelara aldarrikatu behar da Euskal Herriak eskubidea duela bere etorkizuna erabakitzeke, hots, autodeterminazioaren eskubidea aldarrikatu behar du”.

Eta nola agertu ote dira josulagunak euskarari dagokionean? Usu agertu zituen bere uste eta aburuak, beti kritikoak:

“Jesuiton artean, denetarik gaudela uste dut. Ene iritziz, euskal kulturean atzeratuxek gelditu gara jesuitok. Sekulako indarra eduki izan dugu hemen: ikastetxeak, argitaldaria, irra-

tiak... horixe dut nik bizitzako penarik handienetako bat, guztira gutxi egin dugula euskararen alde. Esan nahi dut, ez dugula geure indarraren arabera euskal kulturaren alde lan egin”.

11. Irakasle eta lagunak

Mikel Zarate, Santi Onaindia, Alfontso Irigoien, Adolfo Arejita... izan ziren –“da” oraindik, Arejitaren kasuan–, Deustuko Euskal Filologian irakasle lehenengo aldian. Geroago, irakasle premia hazi ahala, Gotzonek berak irakasle hartutakoak dira, berriz, Juan Manuel Etxebarria, Rosa Miren Pagola, Jabier Kaltzakorta, Joseba Abaitua, Estibalitz Amorrortu eta Josu Bijueca...

Urteetara, honela agertuko zuen Jabier Kaltzakorta irakasle eta ikertzaileak Gotzon Garateren eskola modua.

“Literaturako edertasunak irakurleei bizipoza ematen dien bezalaxe, Gotzon Garate irakasleak ere bere eskoletan ikasleei bizipoza txertatzen zien. Bost hitzetan laburbilduko banu, eta hemen bost ez dira asko, bizi-poza, errespetua, maitasuna, jakituria eta eder-sena hitzak erabiliko nituzke. Blaise Pascalek *esprit de finesse* eta *esprit de géométrie* direlakoak desberdintzen zituen bere gogoetetan. Gotzon guretzat lehena da batez ere: *esprit de finesse*. Bizitza guztia aurretik duten ikasle gazteei jarrera baikor, zabal eta ireki batean jardutea, ikasleak izan dezakeen oparirik handiena dela deritzat. Horrexegatik ere preziatzen, estimatzen eta maitatzen dugu Gotzon Garate”.

12. Omenaldi eta goresmen

Zenbait omenaldi ere jaso zituen Gotzon Garatek bizian. Esaterako, Iñaki Zabaletak eta euskal unibertsitatearen aldeko hainbat lagunek erretretan sartuta zeuden irakasleen omenez antolatua, Durangon. Gotzonek ez ezik, Patxi Altunak eta Txillardegik ere jaso zuten omenaldia.

Euskadiko Liburu Ganbararen ekimenez, berriz, Urrezko Luma jaso zuen anaia Romanekin batera, euskararen alde egindako lanarengatik.

2004an, bestalde, Deustuko Euskal Irakaslegoaren errekonozimendua jaso zuen, entitatea sortu zeneko

25. urteburua ospatzerakoan. Urte berean, Mendebalde Kultura Alkartek ere goretsi eta ohoratu zuen Gotzon Garate, eta hark egindako lan eskerga.

“Guztiokin zorretan gelditu naiz”.

2005ean, Elgoibarko “Seme kutuna” izendatzea hartu zuten asmotzat zenbait herritarrek. Gotzonek, onetsi.

“Poz handia eman zidan. Ez naiz tituluaren gose baina elgoibartarren aldetik datozren guztia niretzat txit estimagarria da”.



Jabier Kaltzakorta. “Euskal Herri osoko zazpi lurraldetan bildutako esapideak Deustuko bulego bateko lau hormaren artean aztertzen dihardu Gotzonek”



Patziku Perurena: “Hagitz ongi oroitzen naiz...”

2005ean bertan, Durangoko Euskal Liburu eta Disko Azokaren Argizaiola saria jaso zuen.

2006an, Deustuko Unibertsitatearen euskal filologoek omendu zuten, Euskal Filologia ikasketak abiatu zitueneko 30. urteurrena ospatuz.

“Nik zerua nola izango den
pentsatzen dudanean...” 2008ko
urriaren 8an hil zen, Deustun.
Loiolan datza.



2008ko Durangoko Azokan ere bereziki ohoratu zuten bere lagunek eta Gerediaga Elkarteak.

2009ko maiatzean, **New York, New York** lanaren edizio eguneratua argitaratu zuen Elkar argitaletxeak, idazleari omenaldia eginez.

2009an, Gotzonen heriotzaren lehenengo urteurrenarekin batera, omenaldi hauxe dugu Elgoibarren...

Aipu eta omen guztietan, konstantea zen euskaldunak Gotzon Garateri zion nahitasun handia. Ezin hobeto adierazten asmatu zuen sentimendu hori Jabier Kaltzakorta irakasleak 2006an Deustuko omenaldi hartan:

“Gotzon Garateren eskoletan halako indar berezi bat har-
tzen genuen. Bihotz-minduei bizi-poza ematen zien. Entusias-

moz eta barne-indar handiz hitz egiten zigun. Hitz batean: bizi-pozaren jabe zen eta gu guztiok ere bizi-poztu egiten gintuen; euskaldunok euskaraz hitz egin behar dugula, gauden lekuan gaudela, gizalegez jokatu behar dugula. Berak erabiltzen dituen adjektibo batzuk erabiltzera, esango nuke Gotzon bera hortz-argia eta batik bat bihoztia, jakituna eta jauntasun handikoa dela... Eta guzti horregatik, idazle eta saiogile aparta den partez ere, ausartuko naiz esaten –euskaldunok hola-koetan atzerako eta uzkur xamarrak bagara ere–, estimatzen dugula, eta estimatu ez ezik, maite ere maite dugula...”

Maitasun handi horren jabe eginik hil zen Deustun, 2008ko urriaren 8an. Gotzon hil ostean, haren bi anaia ditugu oraindik euskarazko idazleen artean: Roman eta Jenaro.

Gotzon Mirena Garate Loiolan (Azpeitia) datza, Jesusen Lagundiko kideen azken egoitzan eta berak amesturiko zeruan.

“Nik zerua nola izango den pentsatzen dudanean, Suitza bezalakoa izango dela pentsatzen dut. Hango edertasuna, hango txukuntasuna, hango ordena zoragarria!”

13. ...

–Ez dok hamahiru

–Badok hamahiru. Hoa San Bartolome kalera. Hoa 13. be-barrura. Hoa eta irakur ezak berriz: “Hemen jaio zen Angel Mari (Gotzon) Garate jesuita, idazle eta euskaltzalea (1934-2008). Elgoibarko herriak esker ona adierazten dio utzitako ondarearengatik”.

–Eskerrik asko, Gotzon.

–Eskerrik asko, Gotzon. Gotzon Garate, bidegile.

miel a. elustondo